

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMI

Kirolak eta apustuak

7 zbk.

2005eko ekainaren 5a



Maritxu Arregi, Maritxu Gonzalez eta Juanita Etxeberria Uzturren.

KIROLAK ETA APUSTUAK

Lumaneko kideen haurtzaroan, errebotea zen Villabonako kirol izarra, zalantzarik gabe (aldizkariaren bosgarren zenbakian luze hitz egin genuenez). Errebotearekin batera, pilotaren bestelako modalitateek ere berebiziko pisua zuten. Futbolak

baino gehiago, txirrindularitzak indar handia zuen orduko Villabonan. Amasan, berriz, herri-kirolak ziren nagusi. Garai hartan, apustuak ere izaten ziren; zelebreak asko. Ezagutu nahi al duzu giro haren berririk? Zatoz gurekin!

EMAKUMEAK ETA KIROLA

Emakumeek, nahi izanda ere, ez zuten gaztetan kiroleran trebatzeko aukera handirik izan. "Etxeko lanak egitea, nahikoa kirol egitea zen orduan. Ez zegoen batere libertaderik baina, ahal genuenean, han-txe joaten ginen lasterketak eta frogak ikustera". Hori bai, orduan ere, txapelketa nagusien ondoren, emakumeek banatzen zituzten lore-sortak eta bestelako sa-



Maritxu Gonzalez

"Etxeko lanak egitea, nahikoa kirol egitea zen orduan. Ez zegoen batere libertaderik"

riak. Encarnak ondo gogoan du sariemate haietako bat, "Paulino Uzkudun Villabonara etorri zenean, Txokoloko Gregorik dotore asko jantzita eman zion erramillatea". Emakumearen irudia bigarren mailakoa zen kirolari zegokionez baina, kasu batzuetan, haien presentzia ezinbestekoa zen, "papera betetzeko" besterik ez bazen ere.

BOXEO IZARRAREN BISITA

Uzkudun boxeolari ezaguna Villabonara etorri izan zen; lagunei bisitak egitera etorri ere, ez boxeo erakustaldiak ematera. "Uzkudunek laguna zuen Villabonako Joxe Ugarte *Pupú* errebote jokalaria. Soldadutzara biak Afrikara batera joatekoak ziren baina, libratu egin ziren azken mementuan". Villabonara bisitan etorri zen igande batez egin zitzaion omenaldia Uzkuduni. "Jende ugari bildu zen festa hartara, amasarrak eta villabonatarak. Herriko denak bildu ginen.

Egun handia izan zen hura eta uda izango zen, bero handia egiten baitzuen. Omenaldia jaso eta gero, udaletxera igo zen Uzkudun eta hitza hartu zuen. Egun polita izan zen, bai" gogoratu du bertan izan zen Encarnak. Maritxu Gonzalezek, Uzkuduni eta, famatu egiten ziren beste kirolariei abesten zitzaien kantua ekarri du mahaira: "*Uzkudun como era un vasco / todos tenianle ascol ahora como es campeón / todos le piden perdón*". Pobreza zenean inork kasurik egin

ez eta, famatu egindakoan, gorai patuz abesten zitzaien kantua, hara!".

Boxeoarekiko afizioa bazen orduan, nahiz eta gurean ez zen jokalaria eta erakustaldi gehiegirik izan. "Villabonan bazen boxeolari bat, Esteban Barkina. Ibarrakoa zen jaiotzaz baina, Villabonan bizi zen. Behin edo bitan eskaini zuen boxeo erakustaldia herrian". Barkina afizionatua zela adierazi dute hizlariak. Txapelketetan parte hartu bazuen ere, ez zuela itzal handirik lortu.

FUTBOLA BEHETIK GORA

Amasako Larre baserriaren parean izan zen lehen futbol zelaia, ibai aldera begira. Belarrezko zelaia zuen eta ikusleentzat zutik egoteko foroa. "Baloï ugari erortzen zen zelaitik ibaira. Txalupa baten laguntzaz ateratzen zituzten Oriatik kanpora". Hizlari guztiek ez zuten ezagutu, *lumanetar* batzuk jaiotzerako bota egin baitzuten. "Aspaldiko kon-

tua da hori, gerra hasi baino lehen bota zuten zelai hura. 1930 urte inguruan jokatzen ziren partidak han". Garai hartako Villabonako futbol taldeak entrenatzen eta jokatzen zuen bertan. "Gu joaten ginen partidak ikustera" dio Encarnak. Iraganeko kontua izanik, hizlariak, jokalaria gutxi batzuen izenaz oroitzen dira. "Pako Car-

denal eta Blas Cardenal herritarrek jokatzen zuten, besteak beste, zelai hartan".

Garai batean, Villabonak bi futbolari profesional eman zituen: Olaso anaiak. Madrilen jokatzen zuten biek: Real Madriden batek eta Athletic de Madriden besteak.

Lumaneko kideak gazte ziren garaian, Villabonako futbol taldea sortu zen. *El empu-*

je zuen izena. Taldean, Villabonako mutilek jokatzeko zuten batik bat baina, amasarren bat ere bazen tartean. Futbol txapelketak egiten zirenean, Andoainera joaten ziren jokatzera, Etxeberrieta auzoko futbol zelaira. Villabonan jokatzeko zutenean, plazan aritzen ziren. Gerra aurretik, futbol zelaia bota eta gero, ez baitzuten besterik egin. "Pio udaltzainak uzten zuenean soilik jokatzeko zuten plazan. Gauza horiek egia dira eta hala esan behar dira, hark 'alde hemendik' esaten zuenean, alde egin behar izaten zen handik". Pioren izena ateratzen den guztietan, irria sortzen da gelan; oroitzapen mordoak dute hizlariak udaltzain harekin. *El empuje* taldearen garaian ez zegoen futbol elkarterik. "Taldea osatu eta tabernaren batean edo bil-

duko ziren antolaketa lanetarako, elkarterik ez zen eta. Villabonan, hala ere, zenbat partida jokatu zituzten? Bi edo hiru? Andoainean jokatzeko zuten gehiago".

Amasan nahiz Villabonan, futbolerako afizio berezirik ez zegoela aipatu dute solaskideek. Olasotarrak kenduta, ez zen futbolari ezagun gehiagorik atera orduan. "Villabonan gerora atera dira futbolariak: Karlos Sorondok, Osasuna taldean, bigarren mailan jokatu zuen eta Andoni Imazek, Realean, lehenengo mailan". Garai hartan futbolerako zaletasun gehiagorik ez izateak badu arrazoia hizlarien ustetan, "inork ez zuen baloia erosteko dirurik. Eskuz egindako pilotarekin ibiltzen ginen gu". Gazteagotan berriz, aurreko aldirik aipa-

tu zenez, auzotarren artean bi talde osatu eta lagun arteko futbol partidak jokatzeko zuten plazan. Eliza zen muga, eraikinetik Tolosa aldera bizi ziren gazteek, Elizondoko taldea osatzen zuten eta elizatik Donostia aldekoek, berriz, Harkaitza taldea. Elizondokoei izena, elizaren ondoan biltzetik zetorkien eta Harkaitza taldekoei, berriz, Zubimusuren azpiko ibaitik ur gutxi igarotzen zenean, harkaitz ugari agerian geratzen zelako. Lagun arteko partidak haiek ez ziren ordu eta erdikoak izaten, "gure partidak hiru ordu igual irauten zuten. Nekatu eta nazkatu arte ibiltzen ginen jokoa". *Lumaneko* partaide Migel Lertxundik eta Jabier Berasaluzek Villabona CF taldean jokatu zuten pare bat urtez.



1. Tolosako Berazubi zelaian antolatutako futbol txapelketa, 1944 urteko maiatzean. Goiko ilaran, ezker-eskuin: Jose Ignazio Elola, Jaime Gorritxo, Migel Alonso, Migel Lertxundi (atezaina), Jose Luis Iribarren, Ramon Garmendia eta Juantxo Garmendia. Behean, ezker-eskuin: Ramon Kintana, Jabier Berasaluze, Anjel Osinaga eta Migel Iturrozpe.

2. *El empuje* taldea Andoingo Etxeberrietan partida batean. Bizkarrez ageri den atezaina Juanito Ezkioga da.

3. *El empuje* futbol taldeko kideak, 1947 urtean Andoingo Etxeberrieta zelaian. Zutik, Txomin Iturrozpe, Laureano Lopez, Elola, Klaudio Saizar, Joxe Arrillaga, Luis Zubiri eta Robustiano Garzia. Makurtuta, Moises Barbe, (ezezaguna), Antonio Garzia eta Felix Cuevas.

TXIRRINDULARITZA, URTEROKO ZITA

Gerra aurretik, apenas ikusten zen bizikletarik ez Amasan eta ezta Villabonan ere. Pixkanaka, ordea, txirrindularitzarekiko afizioa piztu egin zen Villabonan eta, urtero antolatzen zen sona handia zuen froga Santa Ana egunean. Txomin Iturrozpe, Joxe Garmendia edo Joxe Mari Garmendia 'Artatoloxa'koa asko ibiltzen ziren bizikletan. Ondo gainera. Txapelketa ugaritan hartu zuten parte. Bitxikeria moduan, garai-

hartako hasierako bizikletek, kanbioak aldatzeko palanka, behean zutela adierazi dute hizlariak. Geroago etorri ziren goiko palankak. Garai hartan ez zegoen txirrindularitzaren inguruko elkarterik, aurrerago sortu zen Loatzo kirol elkarteak; txirrindularitza, mendia eta pilota biltzen zituen. Jesusen Bihotza parrokiko zentroan zuten bilgunea eta on Epifanio apaizak gidatzen zuten, herriko beste hainbat laguntzaile-

kin batera. Laguntzaileetako bat apaizaren idazkari Iñaki Oizartabal zen. Urte dezenteko geroago sortu zen Irrintzi txirrindulari elkarteak, "orduan, oraindik ez ziren Irrintziko kideak jaio ere egin. Egun Irrintzi elkarteak dagoen eraikina, josteko tailerra zen garai batean. Frantsesen jostundegia".

Azaldu dugunez, Villabonan, Santa Ana egunean izaten zen txirrindularitzaren egun handia. Luistarrek antolatzen zuten urte-

roko lasterketa ezaguna, on Epifanio buru zelarik. Ibilbide ederra bezain luzea egiten zuten lasterkariek, "Villabonako éliza ondolik abiatu eta Lasarteko itzulia egiten zuten lehenik. Bueltan, berriro Villabonatik igarota, Mandubiarako bidea hartzen zuten. Handik Bidaniara jaisten ziren eta Oriotik barrena itzultzen ziren helmugara; Villabonara. Buelta handia izaten zen; bai, bai". Lasterketarako, txirrindulari onentsuenak biltzen ziren Villabonan. "Lasterketa internazionala zen, kanpoko txirrindulariak etortzen ziren. Hogeita hamarretik gora". Hizlariak gustura ateratzen ziren lasterketa ikustera. "Santio eta Santa Ana egunak lanetik jai izaten zirenez, jende asko biltzen zen txirrindulariak ikustera. Ohitura hark urte askoan iraun zuela diote hizlariak, "hogeita hamabosten bat urte bai. Santio jaietako egitarauan, txirrindularien frogaren ekintzarik garrantzitsuenetakoa". Txirrindulari ezagunak etortzen ziren urtero Villabonara, kasu batzuetan, punta-pun-



Txirrindulari gazteak, lasterketari ekin aurretik, Villabonako plazan.



Tolosan, 1957ko abuztuaren 15eko lasterketan. Ezker-eskubi: Alfonso Mendia, Patxi Mujika, Manuel Castilla, Inaxio Zatarain eta Joxe Mari Arsuaga.



1937ko ekainaren 21ean, San Luis Gonzaga egunean antolatutako txirrindulari froga. Argazkian lehenengo ageri den txirrindularia, Txomin Iturrope da. Lasterketa hartako garailea.

tan zeudenak. "Urte batean Bahamontes txirrindulari handia etorri zen Villabonara, garai hartan goi-goian zegoena. Tolosako Papelerako zuzendari Ramuntxo Irizusta Villabonan bizi zen orduan, tren-zubiarren azpian zegoen etxean. Hark eman zuen Bahamontes Villabonara ekartzeko dirua, 3000 pezeta. Orduko 3000 pezeta, e?" azaldu du Migelek. "Bai, orduko txirrindulari onena izango zen baina, Villabonan azkena iritsi zen helmugara. Dirua ziurtatu zuen eta...". Santa Ana egunean lasterketa Villabonan izaten bazen, bezperan, Santio egunean, Bizkaian izaten zen urtero, "nekatuta etorriko zen lasterketa hartatik".

Afizionatu mailako lasterketak ekainaren 21ean izaten ziren, San Luis egunean.

Villabonako Loatzo taldeko txirrindulariek ere hartzen zuten parte. "Villabonako taldea izangatik, taldeko txirrindulariak ez ziren villabonatarak. Bat Alegikoa zen, Andoaingo edo Donostiakoa bestea...". Entrenamenduetarako bakoitza bere erara moldatzen zen, ez zen talde mailako prestakuntzarik izaten orduan, "Andezarratik barrena, bakarka, Orioko buelta egitea zen orduan entrenatzea".

Lasterketetatik kanpora, Amasako eta Villabonako mutil askok, kosta txikiko edo kosta handiko buelta egiteko ohitura zuen bizikletan. Andezarratera igo eta Aiatik barrena, Oriora joatea zen buelta txikia. Handia, berriz, kostaldetik Zumarragaraino luzatzen zen.

KORRIKA, `1000 ERREAL BAIETZ`

Korrika ere ibiltzen ziren orduan, "bai, bazen orduan korrika ibiltzeko ohitura pixka bat ere. Korrika egitea apustuekin lotzen zen, batik bat. Izkiñatik abiatu eta nor iritsi lehenago Aiara, esaterako". Andoaingo Beloki atera izan zen korrika, apustu haietan. Jendeak desfioetan dirua jarriz hartzen zuen parte. "Ahal zuenak, diru asko jokatzeko apustuetan: 1000 erreal, lehengo 250 pezeta. Tabernetan izaten ziren apustuetako txartelak. `1000 erreal baietz` edo `1000 erreal ezetz`".

Herriko festetan ere izaten zen korrikalarien froga. "Villabonako plazan, Santiotan Udalak saria jartzen zuen korrika apustura-

ko. Berrogei edo berrogeita hamar, nor eman buelta gehiago plazari? Ramon Ugarte eta Juantxo Barbé villabonatarak ateratzen ziren korrika. Urte batean, `Chiquito de Aya` ere etorri zen. Bi villabonatarak Aiakoaren aurka aritu ziren batera. Bi baten kontra. Aiakoak irabazi zuen, hala ere. Korrikalari handia zen hura". Gainerakoan, korrika lasterketak egiteko ohitura handiegirik ez zen orduan. Festetan eta, egun bereziren batean agian, antolatzen zen lasterketa bakarren bat. Gutxitan antolatuagatik, izaten zenean, jende askok hartzen zuen parte.

Gerra bukatu eta gero apustu baten berri

eman du Anjelek; "Manolo Garate eta Inaxio Mendiluze Pasusen zeudela, Asteasuko `Hondartza` etorri zen. Hark oso ondo egiten zuen korrika. Afaldu eta gero, sesioan hasi ziren eta Manolok, `bihar Asteasura korrika-apustua jokatuko diat eta irabazi egingo diat, gainera. Agote-enea etxeraino joan eta buelta korrika Villabonara`. Manoloren lagunek, Zizurkilgo Zubiya baserriaren ondoko artasoroan gordeta, Manolori itxaron egin zioten bizikleta eta guzti. Manolok bizikletaz egin zuen ibilaldiaren zatirik luzeena eta apustua irabazi zuen, noski. Aurkariaren haserrea galanta izan zen".

MENDIAN GORA ETA BEHERA

Orain bezala prestatu gabe, noski, baina, mendira joatea oso gustuko zuten *luminet*arrek gazteagotan ere. "Jai arratsaldetan, Garizuman behintzat, mendira joaten ginen. Amasamendin zehar ibiltzen ginen askotan. Amasatik, Kanaletatik barrena, Bertxin etxera sarritan jaisten ginen. Gero, Andoain zeharkatuta, etxera buelta". Mila eskailerak jaitea ere gustuko zuten, "mila ez, bat falta du mila osatzeko" zehaztu dute Migelek eta Anjelek. "Belabietara ere askotan joaten ginen". Amasamenditik kanpora, Uzturrera edo Erniora igotzea gogoko zuten. "Abuztuaren 29an urtero joaten ginen Erniora San Juan txiki egunean. Erreumaren kontra, ikurrinaren koloreko zintak hartzen genituen gurutzearen azpian. Guardia Zibilek ikusten bagintuzten, orduan izaten zen festa!". San Juan txiki egunetik aurrera hasten zen erromeria Ernion. "Hemengo jendeak behintzat, San Juan txiki egunean zuen Erniora joateko joera". Adarra joz igotzen ziren mendira egun horretan, "jende asko, adarrarekin korneta joz etortzen zen. Trenak kanpoko herritarrez lepo beteta etortzen ziren eta bueltakoan, etxera itzuli aurretik, erromeria izaten zen Pasusen". Ernioko festa igandez izaten zen beti; San Juan txiki eguna astean zehar egokitzen bazen, segidako igandean ospatzen zuten eguna. Igande nagusi horren atzetik, beste hiru edo lau igande gehiagotan luzatzen zen Ernioko erromeria, "igande bat asteasuarrentzat izaten zen, bestea alkizarrentzat... Egun horietan ere, txoko askotako jendea joaten zen baina, beren eguna izaten zuten asteasuarrek eta alkizarrek". Goizean goiz abiatzen ziren amasarrak eta villabonatarrek Erniora, "Amasatik edo Villabonatik abiatu, goizeko 07:00etako meza Asteasun entzun eta handik, Larrauldik barrena igotzen ginen Erniora. Gailu-



Maritxu Mendizabal

"Hemengo jendeak behintzat, San Juan txiki egunean zuen Erniora joateko joera"

rretik beherakoan, Zelatunen dantza pixka bat egin eta Iturriotzera etortzen ginen. Bertan bazkaltzen genuen eta dantza gehiago egin eta gero, Pasusera jaitsi eta dantzan jarraitzen genuen. Horiek guztiak egiten genituen. Behin edo beste, Andezarratetik behera, autobusean jaitsi ginen Pasusera baina, oinez ere egin izan genuen buelta guztia". Mendia aisiarekin lotzen dute hizla-

riek, "errekrea zen, egun pasarako aitzakia. Bat edo beste izango zen mendian korrika, apustuak egiten ibiliko zena baina, gutxiengoa". Mendian oinez, lasai ibiltzea atsegin zutenek, Loatzo kirol elkarteak antolatutako ibilaldietan hartzen zuten parte, "Loatzo elkarteak urtero antolatzen zituen mendi ibilaldi neurtuak, Amasamenditik barrena, gehienetan. Amasar eta villabonatar ugarik hartzen zuen parte". Beselako mendi irteera baten berri ere azaldu du Maritxu Gonzalezek, "Zizurkilgo Zaratte menditik barrena, Oriora joaten ginen mendiz Santiotako oporraldian. Hondartzan bazkaldu eta arratsaldea bertan igaro ondoren, trenean buelta etxera. Begoña Balentziaga, Juanita Etxeberria, Dorita Etxenike eta laurok bi edo hiru urtean egin genuen irteera hori".



Loatzo mendi elkarteak hainbat kide Aiako Harrietan 1960ko urriaren 2an. Zutik, Gillermo Alustiza, Biktork Arruabarrena, Maria Anjeles Galarraga, Antton Madariaga, Antonio Ugartemendia, Joxe Barroso, Alfonso Mendia eta Pedro Fuentes. Makurtuta, Antton Markiegi, Teresita Amondarain, Pedro Mari Iraola, Juanito Garmendia 'Tximela', Dexi Beraza eta Jabier Berasaluze.

ARRANTZA ORIAN, EHIZA MENDIAN

Arrantzarako eta ehizarako afizioa bazuten hainbat amasuarrek eta villabonatarrek. "Arrantza edo ehiza egiteko baino, jateko askoz ere afizio handiagoa genuen guk". Anjele arrantzaren egin ohi zuen, "ez kañaberarekin, kordelarekin baizik. Papelera ireki baino lehena goi ibiltzen ginen arrantzan Ori ibaian. Hamar bat metroko sokari, harria lotzen genion muturrean. Gaez harria ibaira bota

eta bertan uzten genuen soka. Goizean arraiarik ba ote genuen begiratzera joaten ginen". Bardoak, amuarraiak eta angilak harrapatzen zituzten orduko Ori garbian.

Ehizatu, berriz, denetarik ehizatzen zen. "Ehizatutako katu arrak saltsan oso ondo prestatzen omen zituzten Exekiel tabernan". Arratzaingo Batista Letamendiak, katuak harrapatzeko kaxak jartzen zituen, arra-

toienak bezalaxe. Hurrengo lana, katua kaxatik zakura pasa eta handik ateratzea izaten zen. "Ez ziren basakatuak harrapatzen, etxeko katuak baizik. Gosea nagusi zenez, edozein gauza harrapatzen eta jaten zen. Jan ezak/n orain katua. Inork ez luke egingo, seguru!". Mendira ehizatzen joateko ohitura ere nahikoa hedatuta zegoen Amasar eta Villabonan. Hegaztiak, erbiak edo

basurdeak harrapatzera talde handia joaten zen inguruko mendietara. Geroago, Modorronen, Logroño eta Soria artean, txabola bat hartu zuen Amasako eta Villabonako hainbat ehiztarik, uso-pasetarako. Hainbat urte txabolara joanez igaro eta gero, etxe mugikor bat egin zuen ehiztari taldeak eta urrian joaten ziren ehizera. Oraindik ere etxe hori erabiltzen dute bazkide diren ehiztariek.



Batista Ugarte, Joakin Lopetegi, Adrian Berasategi, Migel Amiano, Joxe Astiasaran eta ezetzaguna bi erbi chizatu eta gero, 1950 urtean.

IDI-APUSTUAK TRADIZIO

Animaliekin apustu asko egiten zen orduan. Hizlariek, zalantzarik gabe, Amasan eta Villabonan idi-apustuak nagusitzen zirela azaldu dute, "Villabonan ia igandero izaten ziren idi-demak. Tradizioa handia izan zen. Inguruko herrietatik, Aiatik, Asteasutik edo Andoaindik baserritarrak euren idiekien etortzen ziren lehiatzera". Pilota plazetan egoten diren bezala, korredoreak eta guzti etortzen ziren Villabonara, jendeak apustuak egin zitzaizkien. Idi-apustu askotan, Encarnaren anaia Baleriano Yarza izaten zen epailea. Idi-pareak hartzen zuen parte, "idi-parea parearen kontra". Atzean harri pisutsua erantsi eta nagusiak gidatzen zuen aurrera eta atzera. Apustuaren funtsa, zein idiek plaza edo zinta gehiago egin izaten zen. "Gidariak gain, idiaren atzean beste bi lagun joaten ziren. Bat idiarri laguntzeaz arduratzen zen, animalari nahiz harriari zertxobait bultzatuz. Bestea, idiaren



Idi-parea eta apustulariak, dema hasi aurretik, Villabonako plazan.

hondakinak biltzen aritzen zen, kirten luzea zuen zartaginaren laguntzaz. Hori apustuetan izaten zen, batez ere, bidea garbi mantentzea garrantzitsua baitzen". Ganaduak, pisu aldetik, orekatu egiten zituzten apustuetarako. Idiek zuten pisuaren arabera, pisu ezberdineko harriak eransten zizkieten. Idi-apustuetarako harrizko bidea zegoen Villabonako plazaren erdian, Udalaren eta Barbé dendaren artean. Apusturik ez zegoenean, hondarrez tapatuta egoten zen bidea, "errebotean edo futboleko jokatu ahal izateko hondarrez estaltzen zen harrizko bidea. Apustuen aurretik, gantxo batzuen laguntzaz garbitzen zen berriro bidea. Izugarrizko lana

zen. Udalak ordaindu egiten zuen lan hori egiteagatik". Bidean harriekin egindako arraia batzuk zeuden. Arraia horiek neurtzen zuten idiek egin beharreko ibilbidea eta epaileek, arraia horiek ondo igarotzen ote zituzten begiztatzen zuten, idi bakoitzak zenbat plaza edo zinta egin zituen zenbatzeko". Urteko igande ia guztietan dema izaten bazen, Santiotan saio berezia egiten zen, hori bai; desafiorik gabe, festa jartzeko Udalak antolatutako ekintza moduan. "Santiotan, baserritarrei eskaintako eguna izaten zen, uztailaren 28an edo 29an gehienetan. Bestelako ekintzen artean, Amasako goi eta behe bailarakoek, erakustaldia eskaintzen zuten Errebote plazan idiekien".

San Isidroan, Amasan idi-apustuak egiteko ohitura aspaldidanikoa da, Andoaindik apusturako harria eraman zuten garaiakoa. Amasako elizaren ondoan dago oraindik harri hura. Amasara ekarri zuten harria kendu egin zuten Andoaingo plazatik eta Amasara prestatuta ekarri. "Nire senarrak Balerianori galdetu zion, 'Aizak, harri hau noiz entregatu behar dek Andoainera?', eta hark: 'emaztea entrega ezak aurrena' erantzun" azaldu du Encarnak.

Kasu gutxiagotan bazen ere, mutil edo gizon frogatzen zuten. Idiak bultzatu ohi zuten harri bera gizonak tiratzen.



Migel Lertxundi

"Villabonan ia igandero izaten ziren idi-demak. Tradizioa handia izan zen"

ADARRAK ADARREN KONTRA

Amasan nahiz Villabonan idi-apustuen tradizioa nagusitzen bazen ere, oso noizean behin, ahari-apustuak izaten ziren. Ahari nahiz idi apustuak ikusi ahal izateko, sarre-ora ordaindu egin behar zen Villabonako plazan. "Zezenetarako plaza nola ixten dute Santiotan? Berdin-berdin ixten zuten orduan plaza apustuetarako eta, ordaintzen ez zue-

nak, ezin saioa ikusi". Ahari-apustua, bi animalia adardunen arteko borroka zen, "plazan, bata bestearen kontra, bi ahari pare pare jarri eta, kolpeka aritzen ziren". Adar kolpeak ez ziren nolanaikoak izaten. "Kirtenkeria galanta zen ohitura hura. Aharia burutik behera odola zeriola jarrita". Oilasko-jokoaren aipamena ekarri dute segidan,

"orain oilaskoari lepoa moztea ia debekatu dute. Ahariena okerragoa zen, elkarri joka aritzen baitziren". Amasaren eta Villabonaren mugan, Altzo baserriko ukuiluan, bazuten apusturako ahariak hazteko grina, "automobilien batek aharia ez harrapatzeagatik, eskua jarri eta Altzoko Migel Mari elbarrituta geratu zela esaten zuten".

APUSTURAKO GUZTIA BALEKO

Animaliekin apustuak egin eta dirua jokatzen zenean, jendeak tranpa egiteko inolako begirunerik ez zuen izaten, "Ameriketarik etorri zen Enrike Mendizabal zizurkildarra, Donostiara joan zen apustueta ibiltzen zen Aldanondorengana. 'Hoa Tolosara eta joka ezak gure ahariaren alde' esan zion. Jokatu omen zuen eta irabazi. Handik sei bat hilabetera, 'orain joka ezak galtzera' esan zion. 'Nola galtzera? Aurrekoan izaugarizko egurra eman zioan eta nola jokatu-

ko diat ba galtzera?'. 'Hik joka ezak galtzera'. Ahariak irabazten hasi zuen apustua, 'demonio alua, harrapatu nauk ederki'. Animaliak nola dauden ikusteko aitzakiarekin, apustua gerarazi zion epaileari Mendizabalek. Adarrak begiratu eta gero, apustuarekin jarraitzeko agindua eman zuen. Berririo ekin ziotenean, bueltaka hasi zen aharia eta kasu horretan, jokoa galdu egiten du. Mendizabal eta Aldanondo pozik atera ziren zezen plazatik. 'Baina nola? Zer egin diok aharia-



Anjel Egiño

"Apustuak galtzeko edo irabazteko, bakoitzak bere neurriak hartzen zituen, zera!"

ri?' Aldanondok. 'Zer egin diodan? Adarrak begiratzen ari nintzen bitartean, beste eskua- rekin piper-mina sartu zioat ipurdian'. Apustuak galtzeko edo irabazteko, bakoitzak bere neurriak hartzen zituen, zera!" azaldu du Anjelek guztien barre algaren artean.

OILARRAK MOKOKA, ASTOAK LASTERKA

Oilar-apustuak ere puri-puritan egon ziren garai batean. Amasan eta Villabonan ez zen ohitura handirik izan, oilar-apustu gutxi egin zen. "Marrubitzaren etxean izaten zituzten oilar ingeles ederrak, Ernestok eta Federikok hazten zituzten. Oso oilar politikak ziren; txiki- txikiak baina, kolore askotako luma biziak zituztenak. Oilar mota hura erabiltzen zen apustuarako". Ahariak adarkadaka aritzen baziren, oilarrak mokoka. "bi oilar lehiatzen ziren apustuan, bat edo bestea erori arte". Villabonako oilarren borrokaldiraren berri ekarri dute, "Atxukarro kale nagusian Tturko taberna zeukan garaian, oilarren arteko apus-

tu bat antolatu zen. Izan ere, taberna hark terraza baitzeukan atzealdean. Tabernaria eta anaia, harakinak ziren biak. Biek jarri zituzten apusturako oilarrak. Apustu hori ikusi nuen. Geroztik ez dut besterik ezagutu Villabonan" azaldu du Migelek. Oilar-apustuetan ez zen dirurik jokatzen. "Kanpoko herrialdetan ere bazuten oilarrekin apustuak egiteko ohitura. Mexikon adibidez, izugarrizko dirutza jokatzen zen". Bi oilarretako bat hiltzen zenean amaitzen zen apustua. "Ahari-apustuan batzuetan, aharia izutu eta ez zen borrokaldirik izaten, alde egiten baitzuen. Oilar-apustuetan, animalia- ren bat aka-



Encarna Yarza

"Astokarrera, apustua baino gehiago, festa jartzeko ekintza zen"

batu arte ez zen jokoa amaitzen". Astokarre- ra ez zen ohitura odoltsua. Amasako Samar- tinetan urtero antolatzen zen ekintza hori eta amasarrek ederki pasatzen zuten; "astokarrera, apustua baino gehiago, festa jartzeko ekintza zen. Astoa ere, gehienetan atze- raka egiten duen animalia da. Gaietan jarri- takoa botatzen ere abila da. Gustura egiten genuen barre, bai horixe!".

HERRI-KIROLETAN, HARRIA ETA AIZKORA

Herri-kirolak jaietan izaten ziren baina, "gutxi" hizlariak adierazi dutenez. Amasan baziren aizkoran aritzen zirenak; tartean, Muñiki baserriko Joxe. Villabonan ez zen aizkolaririk, "inor ez". Aizkora-apustua, Santiotan baserriarri eskaintzen zitzaion egunean izaten zen eta urte batzuetan, bi amasar lehiatu ziren elkarren artean. Base-

rritarren egunean, harri-jasotzaileak ere izaten ziren; Joxe Antonio Iturbe edo Aizperriko Gregorio eta Loretxo amasarrek; harri-jasotzen ere, ez baitzen villabonatar- rik ibiltzen. Amasan, Samartinetan edo San Isidroan herri-kirolak izaten ziren plazan. Giro ona sortzen zen frogen inguruan. Jen- de asko biltzen zen norgehiagoka ikustera.



1935eko Santio jaietako aizkora-apustua. Aizkolari bakarra lanean, begira, herritar multzoa.

APUSTULARI PETOA, ASTEASUARRA

Apustularia izateko asteasuarra izan behar omen zen, "Asteasuko pontean bataiatua da" eta horrelakoak esaten ziren. Asteasuar- rak apustulariak ziren izatez. Izugarri bizitzen zuten apustua. "Gure amonak esa-

ten zuen; 'ze; festa onak?' galdetu eta 'ba, lau borroka bakarrik' erantzuten zutela edo- zein apusturen edo festaren aurrean" dio Anjelek. Amasarrek eta villabonatarrek hainbat apustutan parte hartu arren, ez omen

zuten horrenbesteko afiziorik. Villabonan idi-apustuek fama handia izan zuten, hala ere, "idi -apustuarako ohitura gehien izan duen eta duen herria Aia da. Ahari- apustuen erdigunea, berriz, Azepeitia".

NESKA-LAGUNTZEA, KIROL IZATETIK GERTU?

Garai bateko neska-laguntzea, kiroleratik eta apustuetatik urrutu suma daitekeen arren, agian, uste baina gertuago egongo zen. "Amasar edo villabonatar mutilen bat inguruko beste herriren batera neska-laguntzera joanez gero, harrika erantzuten zuten bertako mutilek". Ilunpetan, harrikadetatik ihesi,

korrika ibiltzeak ez du meritu gutxi, ez horixe! Herri bakoitzean, neska-laguntzeko ohitura ezberdinak zituzten. Asteasukoak, kanpo-herrietatik zetozen mutilekin oso gogorak omen ziren. Migelek Aiako ohituraren berri eman du, "mutila bizikletan zihoala zast!, neska hartu eta, segi aurrera; neskak

nahi edo nahi ez". Amasarren eta villabonatarren artean ez zen itxuraz halako lehiarik izaten, "baldin eta norberaren gustukoak beste norbaitekin ez bazetorren...". Markaren bat hausteko moduko korrikaldi politak egiten zituzten mutilek, mendian barrena. Hara hor kirol zelebrea!

KIROLA ATZO ETA GAUR

Prestakuntzaren, entrenamenduen, azpiegituraren eta materialaren aldetik, ezin daiteke iragana eta oraina parean jarri. "Pentsa! Orduan ez zen zapatillarik ere, hasie-

ran denak alpargatekin ibiltzen ginen. Eta kirola egiteko ere ez geneukan beste oinetakorik. Geroago etorri ziren zapatillak baina, ez egungo deportiboak. Txapalago-

ak eta arinagoak. Ezin da egungo egoerarekin alderatu ere egin. Hala ere, gaur baino sanoago eta horrenbesteko kompetentziarik gabe egiten zen kirola".

Garai bateko kirolen eta apustuen berri, alai eta batere nekerik gabe azaldu digute *lumanetarrek*. Garaiak aldatzearekin batera, bizimodua bera aldatzen dela gauza jakina da. Aldizkariak garai hartako ohiturak biltzeaz gain, oinarri-oinarrian, gauza material eta berrikuntza gutxiagorekin, pozik eta zoriontsu bizi zirela erakusten digu. Kontuan hartzeko irakaspena, ezta?



Maritxu Gonzalez



Maritxu Mendizabal



Migel Lertxundi




Anjel Egiño



Encarna Jarza

OHARRA

Eskuratu al duzu dagoeneko aldizkariak biltzeko azala? Hala ez bada, jakin ezazu ohiko dendetan eskuragarri daudela, doan gainera!



...ETA HURRENGOAN ZER:

Lumaneren zortzigarren zenbakia, uztailarekin batera iritsiko da irakurleon eskuetara. Hurrengoan, bada, garai bateko Santio jaiak izango dira mintzagai: Ohiturak, ekitaldi nagusiak, herri-tarren parte hartzea, festa giroa... Egun ere, orduko hainbat lekintza mantentzen da; dantza-soka, esaterako. Irudian 1944 urteko emanaldia ageri da. Aurrekoa dantzaten Antonio Zumeaga eta atzeskua dantzaten, berriz, Antonio Florenza. Txistulari lanetan, Ixio Iribarren ezaguna. Ohiturari eutsiz, aurten ere, Santio egunean izango da dantza-soka; ari al zarete prestatzen?



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA